

# URTARRILAREN 5ean EUSKOTRENEK TREN ETA TRANBIA ZERBITZUAK EGOKITU ETA INDARTUKO DITU

Igandean, urtarrilaren 5ean, Euskotrenek egokitu egingo ditu E2 (Topoa) linearen eta Bilboko eta Gasteizko tranbien zerbitzuak, Erregeen Desfilea dela-eta. Zerbitzu horiek indartuko ditu, halaber, Anoetako eta San Mameseko futbol-partiden harira.

:

## BILBOKO TRANBIA

Urtarrilaren 5ean, igandean, Iberdrola Ligako Athletic Club eta F.C. Barcelonaren arteko futbol-partida izango da, baita Erregeen Desfilea ere. Horren eraginez, tranbia-zerbitzua indartu egingo da, eta 10 minututik behin egongo dira trenak:

- Atxuri – La Casilla:  
**7:28 – 17:28, 10 minututik behin**
- La Casilla – Atxuri:  
**7:21 – 21:11, 10 minututik behin**

Horrez gain, zerbitzu-etenaldi hauek ere egongo dira:

- **13:50 – 14:30, zerbitzurik gabe La Casilla eta Euskalduna artean, San Mames hustu bitartean.**
- **17:30 - 20:30, zerbitzurik gabe Arriaga eta Pio Baroja kaleen artean, Erregeen Desfilea igaro bitartean.**

## VITORIA-GASTEIZKO TRANBIA

Urtarrilaren 5ean trafikoa eten egingo da Angulema-Legebiltzarra geltokien artean, 18:30etik 21:30era. Zerbitzuaren gainerako geltokiek betiko eran funtzionatuko dute:

- Azken irteera Ibaiondotik . . . . . 17:45
- Azken irteera Abetxukotik . . . . . 17:49
- Azken irteera Angulema-Abetxukotik . . . . . 18:08
- Azken irteera Angulema-Ibaiondotik . . . . . 18:16
  
- Lehen irteera Angulema-Abetxukotik . . . . . 21:38
- Lehen irteera Angulema- Ibaiondotik . . . . . 21:46

## TRENA

Igandean, urtarrilaren 5ean, Donostian Santander Ligako Erreal eta Villarrealen aurkako partida izango da, baita Erregeen Desfilea ere. Hori dela eta tren-zerbitzuak indartuko dira:

## ERREALA - VILLARREAL

**Partidaren aurretik:**

- Hendaia – ANOETA: 13:03
- Irun – ANOETA: 13:18
- Oiartzun – ANOETA: 13:13
- Errenteria – ANOETA: 13:08
- Altza – ANOETA: 13:05, 13:35
  
- Lasarte – ANOETA: 13:30
- Amara – ANOETA: 13:45, 13:52

**Partidaren ondoren:**

- **ANOETA** – Hendaia: 15:48, 16:03, 16:08, 16:18
- **ANOETA** – Altza: 15:55, 16:11
  
- **ANOETA** – Lasarte: 16:01, 16:10
- **ANOETA** – Zumaia: 16:14

## ERREGREEN DESFILEAK

- Erregeen Desfilea dela eta, Donostian E2 linea indartuko da. Arratsaldean, trenak 15 minututik behin egongo dira Irun eta Amara artean (bi norabideetan).
  
- Halaber, urtarrilaren 5ean, 18:00etan, Gernikako geltokira tren berezi bat iritsiko da Errege Magoekin, hiribilduan zehar desfilea egiteko.

Informazio gehiago lortzeko, erabiltzaileek 944 333 333 informazio-telefonora jo dezakete, baita [www.euskotren.eus](http://www.euskotren.eus) webgunea, @euskotrenEJGV twitter-kontua eta Euskotrenen aplikazio ofiziala ere.

Igortze-data: 2020ko urtarrilaren 2a

*Euskadi, auzolana, bien común*

